

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

UNTZAGA-APREGINDANAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA

Auzolanetik libre geratzearen tasa ordaindu behar dutenen errolda jendaurrean jartzea, eta 2016ko ordainagiriak borondatezko epean ordaintzea

Auzolanetik libre geratzearen tasa ordaindu behar dutenen 2016ko errolda egin da. 11/1995 Foru Arauaren, Arabako lurralde historiko kontzejuenaren, 35.2 artikuluan (ALHAO; 38. zk.a, 1995eko martxoaren 31) eta Kontzejuaren auzolanen Ordenantzaren 6. artikuluan (ALHAO; 21. zk.a; 2002ko otsailaren 18a) xedatutakoarekin bat etorritik, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera hamabost egun baliodun jarriko da jendaurrean errolda hori, interesdunek aztertu eta egokiak iruditutako erreklamazioak aurkeztu ahal izan ditzaten.

Untzaga-Apregindanako Administrazio Batzarraren kontzeju aretoan aztertu ahal izango da espedienteak.

Kontribuzio erroldak jendaurrean jartzean, osatzen duten likidazioen jakinarazpen kolektiboa egiten da, Arabako zergei buruzko Foru Arau Orokorrek (6/2005 Foru Araua, otsailaren 28koa) 9. artikuluan 3. paragrafoan xedatutakoaren arabera; dena dela, interesa dutenek esleitu zai-zkien kuoten aurkako berraztertze errekurtsoa aurkeztu dezakete, hilabeteko epean, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Errekurtsoak eta erreklamazioak administrazio batzarreko lehendakariari aurkeztuko zaizkio, aurretik adierazi diren epeen barruan.

Epe horretan, halaber, egiteke diren auzolanetik libre geratzeko eskatu ahal izango da, haien ordezkariak zehaztuko dituen beste batzuk eginez.

Ordaintzeko borondatezko epea 2016ko abenduaren 1ean hasi eta hil beraren 15ean bukatuko da, bi egun horiek barne direla. 2016ko abenduaren 15ean kobratuko dira helbideratutako ordainagiriak.

Untzaga-Apregindana Administrazio Batzarrak zuzenean kudeatuko du zordunketa ordainketa helbideratu den banketxeetako kontuetan.

Ordaintzeko borondatezko epea amaituta diru sarrerarik egin ez bada, premiamendu bidez kobratuko da, dagokion errekargua ezarrita, Arabako zergei buruzko Foru Arau Orokorrek (6/2005 Foru Araua, otsailaren 28koa) 28. artikuluan xedatzen duenaren arabera.

Untzaga, 2016ko azaroaren 14a

Lehendakaria

JOSE CARLOS MARIN CORRES